

FAQ's

Zer da kreditu-lerro bat?

Kreditu-lerro bat ordainketa tresna bat izateaz gain, kreditu-erraztasun bat da (zure eskura jartzen dugu finantzaketa, erosketak egiten dituzun unean ordaintzeko, gehienbat). Kreditu-lerroarekin ordaintzean, ez duzu ordainduko kontuko saldoarekin erosketa egitean, lerroaren kredituarekin baizik (kontratuan adostutako kreditu-mugaraino). Erabilitako kreditu hori adostutako likidazio-aldiaren amaieran ordainduko duzu.

Zertan bereizten dira zordunketa-txartel bat eta kreditu-lerro bat?

Zordunketa-txartelaren eta kreditu-lerroaren arteko desberdintasuna da **ordaintzeko modua**:

- **Zordunketa-txartelarekin ordaindu:** erosketa txartelari elkartutako banku-kontuko saldoarekin ordainduko da; ondorioz, erosketa egitean saldo adina ez badaukazu, ezin izango duzu ordaindu txartelarekin.
- **Kreditu-lerroarekin ordaindu:** erosketak egiten diren unean, ez dira ordaintzen kontuko saldoarekin, lerroan duzun kredituarekin baizik (emandako kreditu-mugaraino). Emandako kreditua itzuliko duzu adostutako likidazio-aldia amaitzean. Gainera, kreditu-lerroarekin ordaintzeak likidazio-aldia amaitzean interesik gabe erabilitako kreditu osoa ordaintzea edo interesekin modu geroratuan ordaintzea eskaintzen dizu.

Kreditu-lerro batekin ordaintzen baduzu, interesak ordainduko dituzu?

Ez beti, kreditu-lerrorako aukeratzen duzun ordainketa-modalitatearen arabera izango da:

- **Ordainketa hilabete amaieran modalitatea** aukeratzen baduzu, ez duzu interesik ordainduko, kreditu osoa itzuliko duzulako adostutako likidazio-aldiaren amaieran.
- **Ordainketa geroratua modalitatea** aukeratzen baduzu, elkartutako interesak ordainduko dituzu, ordaintzeko malgutasun handiagoa izango duzulako. Izan ere, erabilitako kreditua hileko kuotatan itzuliko duzu, aukeratzen duzun zenbatekokoak, hilabetean erabilitakoa ordaindu ordez.

Kreditu-lerroaren ordainketa-modalitatea nahi dudanean alda dezaket?

Bai, nahi duzunean alda dezakezu kreditu-lerroaren ordainketa-modalitatea, eskaintzen dituenen artean. Horretarako, eskatu egin beharko diguzu, eta berariaz baimendu. Izan ere, zenbait ordainketa-modalitatek elkartutako interesak ordaintzea dakarte (kontratu aurreko informazioan edo INEn zerrendatzen dira, baita harpidetutako lerroaren kontratuan ere).

Zer da Revolving kreditu-lerro bat?

Revolving edo ordainketa geroratuko kreditu-lerro batean, kredituaren itzulketa ez da erabat egiten adostutako likidazio-aldia amaitzean; aldiz, modu geroratuan itzultzen da, kuota erosoetan eta interes elkartu batekin (interes hori zehazten da kontratu aurreko informazioan edo INEn nahiz kontratuan).

Gainera, kreditua birakaria da; hau da, lerroarekin kreditu moduan ordainketak egitean murrizten da. Erabilitako kreditua ordaindu ahala, kreditua "berreskuratu" egingo duzu.

Kreditua modu geroratuan itzultzea aukeratzen duzun hileko kuotaren arabera izango da, baita amortizatu ahala duzun kreditu berriaren arabera ere. Zenbat eta hileko kuota handiago, orduan eta lehenago ordainduko duzu erabilitako kreditua. Ondorioz, kredituaren kostua txikiagoa izango da, interes gutxiago ordainduko dituzulako eta kuotaren zenbateko gehiena kapitala amortizatzerazuzenduko da.

Kreditu-lerro guztiek onartzen dute kredituaren ordainketa pertsonalizatzea zure finantza-beharren arabera. Ondorioz, edozein lerro revolving lerro bihur daiteke, modu geroratua aukeratuta.

Nola kontratatzen da kreditu-lerroa eta zer eskubide ditut?

Zure eskura jartzen dugu (kontratazio-fluxuan erakusten dizugu, eta posta elektronikora bidaltzen) Europako Informazio Normalizatua (INE); hau da, aukeratzen duzun kreditu-lerroaren kontratuari dagokion kontratu aurreko informazioa. Garrantzitsua da arretaz irakurtzea eta, nahi izanez gero, merkatuko beste eskaintza batzuekin alderatzea. Bertan, baldintza ekonomikoak zein kreditu-lerroaren kontratuaren informazio garrantzitsua eskaintzen dizugu (atzera egiteko eskubidea, ordainketa-modalitateak, esleitzen dizugun kreditu-muga etab.). Hartu zure denbora.

Eskainitako baldintzak mantenduko ditugu 30 egunez, kontratua sina dezazun behin ondo pentsatu eta erabaki ostean, produktua zure beharretara egokitzen bada.

Hori dela eta, lerroa kontratatu aurretik, hauetarako eskubidea duzu:

- Kontratatu behar duzun produktuari buruz informazio adina eta egokia jasotzeko.
- Kontratu aurreko informazioa (INE, kreditu-lerroen kasuan) jasotzeko, kontratua formatu iraunkor batean sinatu aurretik.
- Hausnartzeko denbora hartzeko, kreditu-lerroa kontratatu nahi duzun erabakitzeko, behin aplikagarriak diren baldintza ekonomikoak ezagututa (INEn agertzen dira).

Kreditu-lerroarekin egiten ditudan eragiketak kontsulta al ditzaket?

Bai, telefono mugikorrean dagokion aplikazioa deskargatuta edo "PARTIKULARREN EREMU PRIBATUA" atalera joanda www.caixabankpc.com webgunean edozein unetan. Horrez gain, Bezeroarentzako Arretarako 900 101 601 telefonoan gaituzu (astelehenetik larunbatera, 09:00etatik 21:00etara). Haien bidez, zure eragiketen xehetasunak atzitu, eta emandako kreditu-mugan zenbat geratzen zaizun kontsulta dezakezu, baita zure eragiketen xehetasunak

atzitu, eskura duzun kredituaren muga egiaztatu eta kreditu-lerroarekin lotutako beste edozein informazio ere.

Horrez gain, hilero aldizkako informazioa (laburpena) bidaliko dizugu, mugimenduen eta kreditu-lerroarekin egindako ordainketen xehetasunekin.

Gainera, doan eska diezagukezu amortizazio-taula bat, geroratutako eragiketa edo saldoaren zenbateko, aldi eta ordainketa-baldintzak zehaztuta.

Kontratuan atzera egin al dezaket sinatu ondoren? Edozein unetan utz dezaket bertan behera?

Bai, atzera egiteko eskubidea duzu; hau da, gure kreditu-lerroetarako baterako kontratazioari uko egiteko, sinatu eta lehen hamalau (14) egunetan. Ez da beharrezkoa arrazoirik ematea kontratuari uko egiteko.

Lehen 14 egun horiek igarotzean, kontratua edozein unetan utz dezakezu bertan behera, zure aldetik, arrazoirik eman gabe, zor duzun zenbatekoa aldeztatik ordainduta. Eskatzean, zorrik ez balego, guk geuk utziko dugu bertan behera 24 orduren buruan.

Kontratua ezeztatu edo bertan behera utz dezakezu, idatziz, formatu iraunkor eta elektronikoa hola@caixabankpc.com helbidera bidalita, paperean, Gran Via Corts Catalanes, 159-163, de (08014) Barcelona helbidera bidalita edo onartutako beste bideren bidez, jaso izanaren eta haren edukiaren egiaztapena ahalbidetzen duena.

Non kontsulta dezaket sinatzen dudana kontratua? Kopia bat emango didazue?

Kontratuaren kopia bat jasoko duzu, noski. Kontratuaren kopia sinatua bidaliko dizugu harpidetza egitean edota posta elektronikoa bidez.

Nola jarriko gara harremanetan zurekin, adibidez, zure kreditu-lerroaren baldintzen aldaketan berri emateko?

Zurekin harremanetan egon nahi dugu beti, bizkor komunikatu ahal izateko. Hori dela eta, kontratuan hitzartuko dugu komunikaziorako bidea online izango dela: komunikazio operatiboak bidaliko dizkizugu (adibidez, baldintzen aldaketak, segurtasunekoak edo aldizkako komunikazioak, hala nola hileko laburpenak) posta elektroniko bidez, batez ere. Horrez gain, zenbait komunikazio mugikorrera bidaliko dizkizugu SMS edota PUSH mezuen bidez, beharrezkoa denean informazioa ahalik eta bizkorren iristea (esaterako, berehala jakinarazi beharreko lerroaren blokeo-abisuak).

Komunikazioak paperean bidaltzea nahiago baduzu, berariaz eskatu beharko diguzu, baina jakin ezazu agian 0,60 € kobratuko dizkizugula bidalketa bakoitzeko.